

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI), 2006KO ABENDUA


Euskal AEko industri jarduera %5,4 hazi zen 2006ko abenduan

Industri Produkzioaren Indize Orokorraren 2006ko urteko balantzean %4,1eko hazkundera izan da

EUSTATEk landutako datuen arabera, 2006ko abenduan %5,4 hazi zen Euskal AEko industri produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeneotan, 2005eko hil beraren aldean. 2006 guztirako hazkunde-tasa metatua %4,1ekoa izan zen, aurreko urtearen aldean.

Urtaroen eragina zuzenduta, 2006ko abenduan %2,8 hazi zen Euskal AEko industri produkzioa, azaroarekin alderatuta.

Euskal AEko industri produkzioaren urte arteko hiruhereroko hazkunde zuzendua



Iturria: Eustat

Sektoreka, industri sektore handien sailkapena kontuan hartuta, 2006ko abenduko indizearen bilakaerak honako aldakuntzak izan zituen, 2005eko abenduaren aldean: urte hartzeko hazkunde-tasarik handiena ekipo-ondasunena da (%13,0). Bitarteko ondasunek %7,2ko hazkundera izan dute eta kontsumo-ondasunak %1,2 igo dira. Kontsumo-ondasun iraunkorren urte arteko hazkundera %6,6koa izan da, eta kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek, aldiz, %1,5 jaitsi dira. Energiak %10,2ko urte arteko aldakuntza negatiboa lortu du.

Azaroaren aldean, 2006ko abenduko hil arteko aldakuntza positiboa izan da industri sektore handi guztietan. Hazkundera ezberdina izan bada ere, sektore guztiak hazi dira: energia %4,0 igo da, ekipo-ondasunak %1,9 eta bitarteko ondasunak %1,4; kontsumo-ondasunak, aldiz, %5,7ko hazkundera izan dute, kontsumo-ondasun iraunkorrek eta

kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek izan duten igoeraren ondorioz: %5,9 eta %5,6 hurrenez hurren.

Lurralde historikoei dagokienez, abenduko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaerak positiboak izan ziren lurralde guztietan: %11,4 hazi zen Gipuzkoan, %3,0 Bizkaian eta %0,4 Araban. Hil arteko hazkunde-tasak ere positiboak izan dira hiru lurraldeetan: Gipuzkoan %3,7ko hazkundera izan da, Araban %2,5ekoa eta Bizkaian %2,2koa.

2006ko industri jardueraren balantzea

Euskal AEn, 2006ko balantzea Industri Produkzioaren Indizearen %4,1eko hazkunde metatuarekin itxi da. Tasa hori aurreko urtean lortutakoaren antzekoa izan da (%4,0).

Industri sektore handiek hainbat eratako aldakuntzak izan dituzte urteko metatuan. Ekipo-ondasunak %8,5 igo dira, energia %5,1 eta bitarteko ondasunak %2,5. Kontsumo-ondasunak, oro har, %1,3 jaitsi dira. Horien baitan, kontsumo-ondasun iraunkorrak %0,3 hazi dira, eta kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak, berriz, %2,1 jaitsi dira.

2006an metatutako aldakuntzak positiboak izan dira hiru lurraldeetan: Gipuzkoan %5,3 igo dira, Bizkaian %4,3 hazi dira eta Araban %1,6ko hazkundera izan dute.

Taula: 2006KO ABENDUA. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasak (%).

Kontzeptua	Zuzendua		Desestacionalizatua	
	Abe06/Abe05	At/At-1 (1)	Abe06/Aza06	Aza06/Urr06
Indize orokorra: Euskal AE	5,4	4,1	2,8	-0,4
Araba	0,4	1,6	2,5	0,3
Bizkaia	3,0	4,3	2,2	-1,3
Gipuzkoa	11,4	5,3	3,7	0,3
Indizeak helburu ekonomikoka				
Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	1,2	-1,3	5,7	0,3
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	6,6	0,3	5,9	1,9
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-1,5	-2,1	5,6	-0,5
Ekipo-ondasunak	13,0	8,5	1,9	1,0
Bitarteko ondasunak	7,2	2,5	1,4	-0,3
Energia	-10,2	5,1	4,0	-8,0

(1) t urteko urtariletik azken hileraren arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urtearen aldi berdinen aldean

Iturria: Eustat

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Posta elektronik.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxa: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp